

S. MENDIBURUREN LANTXO BAT,
BIBLIOGRAFIA HORNIGARRI

Sebastián Mendibururen liburuxka baten berri eman nahi dut, ene irudiz gure bibliografietan jaso gabea.

Liburuxka honek, 1922ra arte argitaratu gabe iraun zuenez, Vinson, Sorarrain eta Allende Salazarren katalogoetan jatsotzeke gelditu zen. Azken urteotan G. Garrigak Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos-en argitara eman duen *Inventario Bibliográfico Vasco* (1892-1950) sailean ere ez da jaso. Baina honena parkagarri da, zeren bere lanaren hasieran sarrera gisa idatzi zituen lerrotan aipatzen zuen hutsune horien arriskua, Boletín del I.A.E.V.-en lehen tomoaren 51. orrialdean.

S. Mendiburu eta bere idazlaneri buruz R. M. Azkue, L. Elizalde, Y. Etxaide, A. Lizartza, L. Mitxelena eta L. Villasante jaunek egin dituzten estudioetan ez dut aurkitu bere aipamenik. Baina, 1968an, *Euskal idazleak. Mendiburu'tar Sebastian, S.J. (1708-1782)* izenez, Juan Anjel Etxebarria adiskideak bigarren bez argitaratu zuen, berak laburtuz antolatua, S. Anton'go Katekesiaren Euskal-agitalpenak s^a laren babesean, Bilbon. 29 orrialdeko liburuxka.

Liburuxka hau, San Frantzisko Xabierkoaren bederatzizurrena da, Santu honen kakonizatzearen hirurehun urtegarrenean Yorke Agirrek lehen aldiz argitaratua, bere hitzaurre labur batekin. Hara hemen bere xehetasunak:

S. Frantzisko Xabierren irakurraldiak. A. Sebastian Mendiburu, S.J. Bilbao. El Mensajero del Corazón de Jesús. 1922.

Neurritz, 9×13,5 zentimetru ditu, eta 132 orrialde. Telaz enkua-dernatua. Yorke Agirre, S.J.-ren hitzaurrea.

Hitzaurregileak ortografia berrian jarria dago, baina hitzak eta aditzak ikutu gabe, zeudenean utziaz. Beraz, ezertariko aldaketarik gabe, gaia eta hizkuntza formeri dagokion aldetik.

129/132 orrialdeetan (azken orriak), «Bederatzizurrena egiteko o-toitzak» ditu, Y. Agirre berak ezarriak.

J. A. Etxebarriak gertutako bigarren argitalpen laburtuak (Bilbao, 1968), bere 25/28 orrialdeetan, oharrak, aditz berokoiak, hitz bakanak eta esakera bitxiak gaineratu zizkion.

S. Mendibururen hoberena ez bada ere, bibliografian kontuan hartzekoak dira 1922 eta 1968ko argitalpenak.

J. San Martín